

## 26. EUSKAL DENDA

### AURKEZPENA

Asteburu luze honetan, Euskal denda berriro ere izango dugu Durangon, izan ere, Euskal Herriko artisauen erakusleiorik handienetarikoa izango da, aurten ere, eta aukera paregabea izango da euskal lurralde guztietako berrogeita hamar artisau ikusteko. Abenduaren 7tik 11ra bitartean, Euskal dendak Durangoko jarduera kulturalak osatuko ditu, eta artisau produktu bakar eta originala maite dutenak bilduko ditu berriro, merkatu plazan.

Guztira 50 artisau batuko dira, eta 26. edizio honetan ez du beherantz egingo kalitateari dagokionez. Izan ere, ekitaldi honen sustatzaileek, Euskal Herriko Artisautza Tradizionala Sustatzeko Elkarteak, Arbasok, adierazi dutenez, *“gizartea eraldatu egin dela eta artisautzaren kontzeptua eta balioa ulertu duela ikusi dugu azkenaldian. Zentzu horretan aldaketa egon dela dirudi, eskuz egindakoari balioa ematen hasi zaio. Hori guztia gure profesionalak bermatzen dute, bizitza eta ekoizpen ibilbide luzeekin, izan ere, objektu paregabeak sortzen dituzte”*.

Hala ere, elkarteko bozeramaileek uste dute *“krisia gurekin gogortu dela. Sektore txikia gara, eta batzuetan gurea ez da premia handikoa; horregatik, tailerrak biziki ari dira nozitzen egungo egoera. Izan ere, hainbat kasutan krisialdiak pertsiana jaistera behartu gaitu”*. Hala ere, itxaropenez begiratzen diote artisautza tradizional eta garaikidearen urteroko erakusleiorik garrantzitsuenari, pandemiarekin galdutako normaltasuna berreskuratzen baitu. *“Aspaldi izan bazen ere, egia esan, COVID-19aren itzala oraindik atzetik dugu, eta guk, artisauok, ezin dugu ahaztu horrek egin digun kaltea, merkatuen jarduera oro bertan behera utzita, batzuetan kalte konponezina izan dela. Horregatik, Durangoko topaketa hain garrantzitsua da, alde batetik, diren datengatik, Euskal Liburu eta Disko Azokarekin batera ospatzen delako eta, bestetik, artisauak azoka eta merkatuetan delako bere merkaturatze-iturri nagusia. Gero eta gehiago dira online espazioa dutenak, baina ikusleek ikusi, sentitu, usaindu eta ukitu nahi dute, eta hori da Euskal dendan egin dezaketena”*, onartu dute Arbasoko orderkariak.

Zenbakiei dagokienez, Durangoko merkatu plaza 50 artisauk beteko dute, ohi bezala mugaren alde bateko eta besteko euskal lurralde guztietatik etorriak. Horietatik 14, hau da, % 28, berriak dira azoka honetan. Era berean, edizio honek Bizkaiko sektorea ikusarazteko aukera emango du, profesionalen % 62 bertakoak baitira. Baina ez dira faltako Araba, Gipuzkoa, Nafarroa eta Lapurdiko artisauak. Euskal denda, beraz, ezinbesteko topalekua izango da artisautza sektorea bizia dela egiaztatzeko.

## **HELBURUAK**

Euskal dendaren helburua artisautzaren sustapena zabaltzea eta, era berean, artisautzaren merkaturatzea eta sakontzea da, Euskal Herrian egin izanaren ziguiluekin. Hori dela eta, azoka hau aukera paregabea izaten da artisautza lanak zuzenean ezagutzeko. Are gehiago, profesional horiek ezagutzeko parada ederra izaten da. Izan ere, Euskal Herriko artisautzak mugak gainditzeko kalitatea badu, eta asteburu honetan ikusteko gai izango da publikoa.

Era honetan, Arbaso bere apustu aitzindariagatik nabarmentzen da. Elkarte honek antzinako ofizioak balioesten ditu, izan ere, bere baitan dituzten artisauek beti landutako objektuak garatzen dituzte, fabrikazioaren ikuspuntutik, hau da, lanak eta artisautzako prozesuak ahalik eta gehien errespetatuz diseinatuak.

Hala eta guztiz ere, askok baino askok berrikuntzak egiten dituzte eta orainean eta etorkizunean bilatzen dituzte beren inspirazio-iturriak. Horregatik guztiagatik, gaur egun, artisau izatea garaikidetasunaren sinonimoa da, eta beste behin ere agerian jarriko da edizio honetan. Horretan guztian eragina du XXI. mendeko artisauek berrikuntzaren, diseinua, iraunkortasuna, teknika zaharrak menderatzea, bilaketarekin uztartuz. Apustu pertsonal horiei esker, eta profesional asko benetako aitzindari bihurtu dira.

Artisautza bizitzeko modu gisa uler daiteke, baita herrialdeko kultura-balioak ere, garapen ekonomikoari egiten dioten ekarpena ahaztu gabe, eta lanbideen mantentzean duen balioa; izan ere, artisauengatik ez balitz, ez lukete denbora asko biziraungo.

Esperientzia honi esker, bisitariak konprobatu ahalko du antzinako lanbideak oraindik bizirik daudela eta, era berean, artisau produktuak onak direla. Halaber, gure herriaren balio kulturak bultzatzeko eta garapen ekonomikoa sustatzeko modu bat ere bada, eta galtzen doazen ogibideak bizi-iraunarazteko. Hartara, ekimen honen inguruan, Euskal Herrietako artisautzaren eta antzinako lanbideen gailenak batuko dira.

## **EUSKAL DENDAREN HISTORIKOA**

Euskal dendak, beste edozein sektorek bezala, gaur egungo krisi ekonomiko eta soziala pairatu du. Izan ere, ez zen ospatu 2020an, COVID-19aren pandemia dela eta. Beraz, izurritearen osteko bigarren edizioa izango da aurtengoa, eta musukorik gabeko lehena. Hortaz, zenbakiei eta bertaratuei dagokienez, esan liteke 26. edizio honek normaltasuna berreskuratu duela.

Bisitarien kopuruari dagokionez datuak bat datoz iraupen-egunen arabera, baina batez besteko bat ezarri beharko bagenu, 20.000 bisitari ingurukoa izango litzateke. Esaterako 2021ean 15.700 pertsona hurbildu ziren merkatu plazara. Azken erregistro hori bisita-sabaia baino askoz txikiagoa da, era horretan pandemia baino lehen 34.000 bisitari zenbatu ziren. Zentzu horretan, aipatu behar da, Euskal dendaren sarrerak zenbaki objektiboak direla, sarrerako atean zenbatzen baitira, eta egun horietan zehar gertatutakoari erantzuten diotela.

Ekitaldiaren antolatzaileen ustez, *“datu hauek argi uzten dute guregana hurbiltzen direnek kontzientzia osoarekin eta nahi izateko nahiarekin egiten dutela, eta parte hartzen dute artisauekin gozatzeko”*.

Datozkigun egunei erreparatuta, aurtengo ediziorako aurreikuspena aurreko urteetakoaren antzekoa da, bai bisitariei, bai salmentei dagokienez. Horrek esan nahi du sektorearentzako bultzada bat dela, krisi garai hauetan.

## **PARTE HARTZAILEAK ETA ESPEZIALITATEAK**

Arestian aipatu dugun bezala, 26. Euskal dendara euskal lurralde guztietatik etorriko dira. Aurreko edizioetan baino gehiago ez dira izango, espazioa bera baita, 1.600 m<sup>2</sup>, eta sartzen dira sartzen direnak. Metroek muga jartzen dute. Gauzak horrela, 50 artisau izango dira guztira, hauexek, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi eta Nafarroatik etorritako artisauak. Baina ez dira aurreko edizioko artisau berak, izan ere, horietatik 14 berriak izango dira. Horrek esan nahi du % 28 ez dira egon Euskal dendan, eta horrek, beti bezala, balio erantsia ematen dio azokari.

Datuak lurraldeka aztertzen baldin baditugu, beste behin ere, Bizkaia jarri da buruan, 30 bizkaitarrak izango dira guztira, iaz baino bost gehiago. Gipuzkoako presentzia gutxituko da eta 9 izango dira lurralde horretako artisauak. Arabatik 4 iritsiko dira, Nafarroakoak sei izango dira, eta mugaren beste aldetik, hau da, Ipar Euskal Herritik artisau bakarra ibiliko da, Lapurditik, hain zuzen ere.

Durungaldeak bere txokoa izango du Euskal dendaren barruan, hiru artisaurekin. Guztiak topaketa honetako klasiko handiak. Horregatik, ez du huts egingo **Eneko Unzaluk**; izan ere, bertoko bitxigileak ezinbesteko hitzordua du plaza honetan. Bestalde, Berrizko **Félix Larrañagak** zura zizelkatzen du, eta beste behin ere elkartuko da publikoarekin. Bisitariak maite dute Larrañaga, horrela aitortu zuten 2018an stand onenaren saria eman ziotenean. **Gorakat** tailerrak ere ez du ekitaldi hau galdu nahi. Izan ere, gazte elorriarrak bost urte daramatza hutsik egin gabe.

Sektoreka, aurten arrakastatsua ehungintzarena izango da, 11 artisaurekin. Horien artean denetarik aurkitu ahal izango da; osagarriak, modari bera, feltroa edo zuntzak. Eguberria gertu dugunez, ez dira faltako ohiko segmentuak, hala nola, bitxigintza, larrugintza, imitaziozko bitxigintza, bakoitzak bost artisaurekin. Alabaina, ez dira bosna bakarrak izango, izan ere, kometika naturala izar bihurtzen ari da eta gero eta ordezkari gehiago izaten ari da, aurten bost ere izango ditu.

Nekazaritzako elikagaien sektoreari, halaber, leku garrantzitsua egingo zaio aurtengo Euskal dendan, bere arloko onenatarikoak izango dira. Hortaz, leku berezia izango dute Gorrotxategiren txokolateak, Garrarteren garrapinatuak, Lorez Loreren eztiak, Katealderen pateak edo Ziorregiko gaztak.

Beste gremioak ere egongo dira, esaterako, zurgintza (3), zeramika (2), panpinagintza (1), jostailuak (3), euskal kirola (1), makramea (1), serigrafia (1), lanparak (1) eta lore lehorra (1).

## NOBEDADEAK

Lehengo aldiz etorriko diren artistak hurrengo hauek dira:

**ARABA:** Ordezkarari arabar berri bakarra:

**KUIA LAMPARAS DE CALABAZA:** Bidaiek pertsonak eraldatzen dituzte, bada Iñaki Garciaren kasuan hala izan zen. Istanbulgo bazar batera egindako bisitak hankaz gora jarri zuen bere bizitza. Eskuz egindako lanparak ikusi bezain pronto, konturatu zen hori zela berak egin nahi zuena. Bereak aparteko diseinuak dira, gela bakoitzeko argia ikusgarria izateko. Material ekologiko eta jasangarria erabiltzen du lanpara bakar eta eksklusiboa sortzeko.

**BIZKAIA:** Ordezkarari bizkaitar berriak honakoak izango dira:

**LAUKY:** Proiektu kontzeptuala da hau, non filosofiak artisau ekoizpenarekin bat egiten duen. Horrela sortu da Berriatuan motxilak eta poltsak egiten dituen tailerra. Kalitatezko ehunez eginak daude, material jasangarriekin eta ekologikoak. Artisau honek ehun-hondarrak aprobeztatzen ditu beste bizitza emateko, zero hondakin sortzen saiatuz. Gainera, lehengai guztiak beganoak dira.

**REVOLUCIONA TALLER DE CUERO:** Izenak ondo adierazten duen bezala, re-eboluzioa dute xede. Bilboko tailer honetan ausartak dira gero, izan ere, Kombucharekin egindako poltsa baten ekoizpen artistikoa egin dute; Basque BioDesign Center eta Ithra, Saudi Arabiako zentro baten arteko lankidetzak. Era horretan, lehiaketa biomaterial batekin, kasu honetan larruarekin, poltsa baten diseinua lortzea zen helburua. Irabazleak tailer honetan egin zuen pieza. Bilboko San Anton elizaren aurrean daude, handik lau haizetara diseinuak zabaltzen dituzte.

**ENARA ARTE TEXTIL:** Natura, itsasoa, mendia eta feminismoa dira Enara Lariz mugiarazten duten indarrak. Koroak, zaporea eta kolorea duten tapizak, hainbat koloretan txirikordatutako poltsak, dena eta denetarik egiten du bizkaitarrak. Munduan zehar bidaiatu du eta bisitatu dituen bazterretan harrapatu ditu musak. Bereak korapilo magikoak dira, objektu bakarrak eta pertsona bakoitzarentzat bakarrik. Ehun naturalez egindakoak eta Euskal Herriko lekuetan jasotako egurrekin ornituta. Sektore honetako Euskal dendan aurkezten den lehen artisaua da, beraz, aukera zoragarria izango da bere objektuetako bat eskuratzeko.

**TOKYOSTORY:** Iraganeko altzariak eta lanparak BER-masterizatzea da haien lana. Orain, vintage modan dago, orain mid century da sasoi onena, bada bere osotasunean berpiztuta iritsi da Tokyostory-ra. Tailer honetan aintzinako pieza horiei haien ezaugarriak berritzen dizkiete. Ez daude pozik iragan mendeko pieza ikonikoak zaharberritzearekin. Izan ere, altzari txikiak egurrean, burdinan eta, batzuetan bi materialak elkartuz egiten dituzte.

**SEBASTIANA GUK:** Bilatzen ari bazara osagarri liluragarriak hemen aurkituko dituzu, eta Euskal denda honetan duzu hitzordua. Artisautza garaikidea da Bilboko tailer horretan sortzen dutena; bertan, erabiltzen diren hainbat sortzaileren ideiak elkartzen dira, bizitzari kolorea eta distira emateko. Bilbotar hauen baikortasunak ilargiraino eta buelta egiten du, eta hura guztia beren lanetan ikusten da. Durangoko hitzorduan egindako lehen agerraldi honetan, seguru ez dutela inor axolagabe uzten.

**KIRIBILTXO:** Kiribiltxo egungo bitxigintza artistikoko marka da, Bilbon, 2004. urtean jaiotakoa. Tailer honetan hainbat material eta hainbat teknikekin esperimentatzen da. Forma geometrikoak eta espazioen bilaketak dira Olaia Fernández Egañaren santu eta seinalea, hizkuntza propio etengabeko bilaketan dabil gazte hura. Izan ere, horiek dira bere arte-lanari, hau da, belarritakoetan, eskumuturrekoetan edo eraztunetan bizia ematen dituen. Sormenez beteriko lan originalak, eskuz eginak eta edizio mugatueta

**BUIA TAILERRA:** 35 urteko ibilbidea du Paco Seco artistak. Bilboko Buia auzoan duen tailerretik, buztinaren sormena eta originaltasuna lantzen ditu. Zeramikaren erreferente handienetako bat da Bizkaian eta bere lanak arlo publikoan zein pribatuan aintzatetsiak izan dira. Produktu berezia nahi baduzu, haren esku utzi eta seguru berak lortuko dizula “etxe diferentea”.

**REDMASAI:** Larruarekiko esperientzia handiko duen klasikoa da. RedMasain balioetsi egiten dute bai prozesua, bai materiala. Arrietako baserriko tailerrean gauzak ondo eginda egon nahi/behar dute, xehetasunak zainduz, izan ere, ez dute erabilitako denbora neurtzen, inportanteena da ondo egitea. Beraien proposamenak edo besteren erronkak onartzen dituzte, beraz, eskatu nahi duzuna, egiteko gai baitira.

**ARETXEDERRA:** Larruzko lanari ekin eta ekin dabilta, hori dela eta, diseinu propioak planteatzen ditu Sopuertako tailerrak. Izan ere, bizitza daramatzate larruari forma emanaz, beti eskuz, mimoz eta arreta bikainez. Durangora iritsiko dira azken bildumekin, esaterako, diru-zorroak, gerrikoak, poltsak eta burutik pasatzen zaizun guztiekin, besteak beste. Maisutasun osoz egindako lana, eta betiere ikasten jarraitzeko prest.,

**NAFARROA:** 26. Euskal Denda honetan bi dira Nafarroko artisau berriak :

**KURUNKUN TXOTXONGILOAK:** Txotxongiloak egiten dituzte, hala ere, bereak ez dira edozein txotxongilo. Izan ere, tailer honen sustatzaileak hezitzaile eta psikomotrizista gisa prestatuta daude, are gehiago, arteterapian espezializatuak dira. Horregatik, txotxongiloek eremuarekin konektatzeko balio dute. Fantasiatzeko mundua sortu dute beren pertsonaiekin; katuak, txakurrak, saguak, lehoiak, otsoak, maitagarriak, iratxoak, gudariak, sorginak, besteak beste.

**LOS JABONES DE MONTSE:** Xaboi guzti-guztiak honela eginda daude: landarez beratuak, horietako asko haren baratzean landuak. Euskal dendan aurkeztu du bere burua lehendabizikoz. Los jabones de Montse-ren xaboiak osagai naturalekin egindakoak dira, eta hasi hasieratik eskuz ekoiztuak. Horregatik mimatzen eta ahalegintzen dira etapa bakoitzean prozesu berezia izatea. Ingurumena errespetatzen dute, izan ere, haren produktuak plastikorik gabe daude eginda.

**GIPUZKOA:** Gipuzkoako nobedade bakarrak hurrengo izena du

**LANBERA:** Urteetan zehar Gipuzkoako bakarrak izan dira, izan ere, 30 urte baino gehiago daramatzate sektorean, zurezko jostailuak sortzen, betiere helburu didaktikoarekin. Horregatik, Durangon puzzleak, erratzak, balantzeak aurkeztuko dituzte. Horiei guztiei bizia emateko, zur mota desberdinak erabiltzen dituzte, beti modu naturalean tratatua. Sormen-prozesua taulen lodieran oinarritzen da, neurrira egindako ebaketa, lixatzea eta pintatzea, betiere toxikoak ez diren pinturekin.

**LAPURDI:** Lurralde horretatik honako artisaua etorriko da:

**ESKUZ HOLAKATUA:** Brigitte Ryckenbusch Eskuz Holakatuaren arima da. Ainhoako artisau honek zurezko objektu apaingarriak sortzen ditu; gehienak euskal kulturaren sortutakoak. Baina ez da horretan aritzen den gauza bakarra; lanak haurrentzako gelen dekorazioa du iturri nagusizat. Gainera, ez da zaila izango Brigitte lanean ikustea, hori dela eta, aprobetxatu aukera eta eskatu zuk nahi duzuna, bertan egingo baituzu.

## ARBASO: sustatzaileak

Arbaso da Euskal dendaren eragilea; Gizarte Izaera duen irabazi asmorik gabeko elkarte da. Helburu nagusia honakoa du: euskal artisautza tradizionala eta garaikidea bultzatzea Euskal Herrian.

Arbaso izaera nazionala duen artisauen elkarte bakarra da Euskal Herrian. Ia ehun artisau-tailer biltzen ditu. Helburuak honakoak dira:

- ~ Euskal artisautza sektorearen ordezkariak izatea.
- ~ Artisautza tradizionala ezagutaraztea eta egunero erabiltzea sustatzea.
- ~ Labela edo jatorrizko izendapena lortzea euskal artisautza tradizionalarentzat. Gipuzkoan eta Nafarroan badugu kalitate-etiketa bat.
- ~ Euskal artisautza eta kultura sustatu nahi duten erakunde publikoen eta pribatuen inplikazioa lortzea.
- ~ Eguneroko artisauen lana zaintzea, berori baita gure ondare kulturalaren etorkizuneko giltzarria. Laburbilduz, belaunaldi berriei ezagutzera ematea gure herriaren usadioak, kultur tradizioan aberatsak gara-eta.



## **FITXA TEKNIKA**

**EDIZIOA:** 26.a

**DATA:** abenduaren 7tik 11ra

**ORDUTEGIA:** Goiza, 11:00 - 14:30  
Arratsaldea, 16:30 - 21:00  
Igaldea 11, 20:00ak arte

**ERAKUSTOKIAK:** 50

### **LURRALDEKA**

Araba 4  
Bizkaia 30  
    Durangaldea 3  
Gipuzkoa 9  
Lapurdi 1  
Nafarroa 6

### **SEKTOREKA**

Nekazaritzako elikagaiak 5	Ehuna 9
Zeramika 2	Kosmetika 5
Lore lehorrak 1	Feltro 1
Landare-zuntzak 1	Panpigintza 1
Zura 3	Euskal Kirola 1
Serigrafia 1	Makrame 1
Larrua 5	Bestelakoak 1
Bitxigintza 5	Jostailuak 3
Imitaziozko bitxigintza 5	

**LEKUA:** Durangoko udal merkatu plaza. (1.600 m2)

**BABESLERIK NAGUSIENA:** Bizkaiko Foru Aldundia

**BABESLEAK:** Durangoko Udala  
Durangoko Turismoa  
DEIA  
GARA  
ONDA VASCA  
ANBOTO

**INTERNETEKO HEDAPENA:** [www.euskaldenda.info](http://www.euskaldenda.info)  
[euskaldenda.blogspot.com/](http://euskaldenda.blogspot.com/)  
[www.arbaso.com](http://www.arbaso.com)

**KOMUNIKAZIO ARDURADUNA:** [prentsa@arbaso.com](mailto:prentsa@arbaso.com)  
607 86 32 24